

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 198/2023 Erabakia, apirilaren 18koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan eta udaletan egin beharreko turismo inbertsioei aurre egiteko laguntzetarako 2023ko deialdiari

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuak 8. artikuluan xedatzen du Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari dagokiola lanbide kualifikazioa eta enplegagarritasuna hobetzeko prestakuntza ekintzak sustatzeko ekintzak eta ekimenak proposatzea eta haiek gainbegiratzea, bai eta lanbide heziketako zentroak eta Arabako beste erakunde batzuk hobetzea, autonomoei laguntzea, txikizkako merkataritza garatzea eta laguntzea, eta turismoa eta artisau jarduera sustatzea ere.

Azken urteotan, bisitarien kopurua eta turismoaren garrantzia nabarmen hazi da lurralde historikoan. Sektore horren alde egindako lanari esker, Araba helmuga turistiko ia ezezaguna izatetik gero eta jende gehiago erakartzen duen helmuga izatera pasa da. Arabako Foru Aldundiak jarduera horren alde egiten du argi eta garbi, lurraldearen garapen ekonomikoa ahalbidetzeko aukera gisa, erakundeentzat, enpresentzat eta herritarrentzat onura ekarriko duelakoan.

Turismoaren sektorea oso azkar ari da garatzen, eta, horregatik, kontsumitzaileak erakartzeko estrategia indartzen ari da Arabako Foru Aldundia, lurraldean turismoaren garapen jasangarria sustatzen eta konplexua eta zeharkakoa den sektorearen buru izaten.

Sail honen helburua da Araba turismo hazkundearen eredu egitea, gure turismo helmugen, produktuen eta baliabideen jasangarritasunean, kalitatean eta aniztasunean oinarrituta. Horren harira, deialdi publiko bat egitea erabaki da, osasun alarma apaldu ondoren, gure lurraldeko ekonomia eta turismoa lehenbailehen suspertzea lortzeko laguntzak emateko.

Egungo ziurgabetasun eta egoera aldakorraren ondorioz, ekonomia suspertzen hasteko, sortzen diren erronken arabera erreakzionatzeko eta jarduteko neurriak hartu behar dira. Neurri horiek gure turismo helmugen, produktuen eta baliabideen jasangarritasunaren, kalitatearen eta aniztasunaren aldeko apustua egiten dute epe ertain eta luzera, Arabako Lurralde Historikoa turismo helmuga seguru, jasangarri, arduratsu, adimentsu, bikain eta lehiakor bihurtzeko.

Horregatik guztiagatik, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emateko eta publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioak eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek eta udalek 2023ko ekitaldian turismo inbertsioak egiteko gauzatzen dituzten ekimenak arautuko dituen laguntza deialdia ezartzen da.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Onestea Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan eta udaletan 2023ko ekitaldian egin beharreko turismo inbertsioei aurre egiteko laguntzen deialdi publikoa.

Bigarrena.- Deialdia honako hauek arautzen dute: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko aplikatzen diren oinarri orokor arautzaileek (Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) eta erabaki honen eranskinean xedatzen denak.

Hirugarrena.- Erabaki honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuko zenbait partidaren kontura ordainduko dira. Hona hemen zeintzuk diren aurrekontu partidak eta banaketa:

- Partida: 30502G/432300/76500300; zenbatekoa: 167.264,00 euro; onuradunak: kuadrillak.
- Partida: 30502G/432300/76290302; zenbatekoa: 172.808,00 euro; ; onuradunak: udalak.

Deialdi honen hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100 handitu ahal izango da, gehienez, dagozkion aurrekontu transferentzien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, baina zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegien aurrean, egintza argitaratu ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bosgarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 18a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLÉS

ERANSKINA

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO KUADRILLETAN ETA UDALETAN 2023KO EKITALDIAN
EGIN BEHARREKOTURISMO INBERTSIOEI AURRE EGITEKO LAGUNTZEN DEIALDIA****1. artikulua. Xedea**

Deialdi honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eta udalei laguntzea, norgehiagoka prozedura bidez dirulaguntzak emanez, lehiakortasuna hobetzeko turismo inbertsioak egin ditzaten.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Ebazpen honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

- Partida: 30502G/432300/76500300; zenbatekoa: 167.264,00 euro; onuradunak: kuadrillak.
- Partida: 30502G/432300/76290302; zenbatekoa: 172.808,00 euro; onuradunak: udalak.

2.2. Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri orokorren 7.2 artikulua betetzeko, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak ebazpen bidez birbanatzeko, balorazio batzordearen proposamena aintzat hartu ondoren eta deialdiaren guztizko aurrekontua ezinbestean errespetatuta.

2.3. Deialdi honen hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100 handitu ahal izango da, gehienez, dagozkion aurrekontu transferentzien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak honako hauek eskura ditzakete:

- a) Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek.
- b) Arabako Lurralde Historikoko udalek.

3.2. Berariaz baztertuta geratzen dira 2023ko ekitaldirako Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren dirulaguntza izendun bat jaso duten eskatzaileak, baldin eta haren xedea bat badator dirulaguntzaren xedearekin, bai eta haiekin elkartutakoak ere, adjudikazioaren unean hitzarmena sinatuta izan edo ez; baztertuta geratzen dira, halaber, laguntza lerro honen aurreko deialdietan emandako beste dirulaguntza batzuk epe barruan egin edo justifikatu ez dituztenak, salbu eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz ez-betetze horren arrazoiak behar bezala justifikatu badira.

3.3. Ezingo dira dirulaguntza hauen onuradun izan onarpen prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa egiten duten entitateak, hala xedatzen baitu Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikulua.

4. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

4.1. Proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak lagundu ahal izango dira diruz.

Lau motatakoak izan ahalko dira:

A) Turismo irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak. Esate baterako, honako hauek:

1. Honako hauek hobetzeko obrak: sarbideak, desplazamendu horizontalak edota bertikalak, komunak, atea eta pasabideak etab., bai eta oztopo arkitektonikoak kentzeko egiten direnak ere.

2. Ikusmena, entzumena edo ukimena erabiliz orientatzeko panelak edota euskarriak.
 3. Zerbitzuei buruzko argibideak braillez edota ikusmen eragozpenak dituztenek irakurtzeko egokituak.
 4. Desgaitasuna duten pertsonen informazioa modu autonomoan eta bakoitzaren aniztasuna kontuan hartuta eskuratzeko aukera ematen dieten web teknologiak.
 5. Honako hauek erostea: Joëlette aulkiak edota pertsonaitsuak eta ikusmen urrikoak baliabide naturaletan ibiltzeko ezinbestekoak diren gailuak, bai eta turismorako baino erabiliko ez den beste edozein ibilgailu elektriko ere.
- B) Erakunde eskatzailearen turismo jarduerak sortu, abian jarri, zabaldu eta dibertsifikatzeko beharrezkoak diren aktibo finkoetako inbertsioak, Besteak beste, honako hauek eskuratzeko:
1. Turistei alokatzeko bizikletak, bai eta umeak eramateko aulkiak ere.
 2. Auto eta autobus elektrikoak, balorazio batzordearen iritziz argi eta garbi helburu turistikoetarako badira.
 3. Behaketa astronomikorako edo animalia espezieak behatzeko teleskopioak.
 4. Instalazioak erabilera turistikorako egokitzeko obrak.
 5. Produktu edo zerbitzu turistikoak eskaintzeko beharrezkoak diren altzariak eta ekipamendua.
 6. Turismo erabilera duten instalazioetarako errotuluak, toldoak eta pertsianak.
 7. Ekipamendu informatikoa.
 8. Baliabide turistikoetarako buruzko argibideak ematen dituzten taulak, seinaleak eta euskarriak, baita tokiko produktuei buruzkoak ere.
 9. Bisitarien ibilgailuak aparkatzeko lekuak atontzea; aparkalekuak baliabidetik kanpo egon behar dira eta beren helburua ibilgailuen eragin kaltegarria arintzea izan behar da.
- C) Baliabide turistikoetarako edota ondare historikoaren berreraikitze birtuala, errealitate areagotuko mota guztietako aplikazio interaktiboak barne, berreraikitze birtualeko ibilbide bat egin ahal izateko, edozein erabiltzaile Arabako baliabide turistikoak behatzeko aukera emango diona, smartphone, tableta edo ordenagailu baten bidezko murgiltze esperientzia batean.
- D) Efizientzia energetikoa hobetzeko jarduketak, klima aldaketa arintzekoak barne: karbonoaren kutsadura mugatuz eta energia berriztagarrietarako trantsizioa sustatuz produktu eta zerbitzu turistikoak emateko behar den energia murriztera bideratutako jarduketak; mugikortasun jasangarriko jarduketak, esaterako, garraio publikoan ibilgailu elektrikoak erabiltzea eta ibilgailu elektrikoentzako karga puntuak instalatzea, eta eraikinen birgaitze jasangarriko jarduketak.
- E) Donejakue Bideko eta Inaziotar Bideko erramesei arreta emateko azpiegiturak hobetzeko lanak, dagoeneko badaudenak konpontzeko, handitzeko edo eraberritzeko egiten direnak, hain zuzen, eta Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidean (GR38), Vasco-Navarro trenbideko bide berdean eta Arabatik pasatzen diren ibilbide eta bide seinaleztatuen inguruan zerbitzuak eta ekipamenduak ipintzeko egiten diren inbertsioen gastuak.
- F) Bisitariak hartzeko eraikinak edo informazio turistikoa emateko azpiegiturak (turismo bulegoak, turismo informazioguneak...) konpontzea, handitzea eta mantentzea edo eraberritzea. Kontzeptu honen barruan sartzen dira zentroetako barne ekipamenduak: altzariak, ekipo informatikoak eta ikus-entzunezko ekipoak.
- 4.2. Dirulaguntzaren xede diren inbertsioak Arabako Lurralde Historikoan kokaturik egon behar dira.
 - 4.3. Eskatzaile batek mota desberdinetako inbertsioak aurkezten baditu, eskaera bat aurkeztu beharko du inbertsio mota bakoitzeko (gehienez 3 eskaera eskatzaile bakoitzeko).

4.4. Tributuak diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira, baldin eta onuradunak ordaintzen baditu. BEZa eta gainerako zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira inolaz ere diruz lagunduko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

4.5. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatea baimentzen da, betiere Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 27. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

4.6. Proiektu beraren barruan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz turismoa sustatzen nahikoa laguntzen ez duten jarduketak badaude, baztertu egin daitezke esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epealdia

Deialdi honen onuradunak diren erakundeek 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 15era bitarteko aldiari egin beharko dituzte inbertsioak.

6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Erabaki honetan jasotzen diren laguntzak diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 80eraino iritsiko dira (ikus Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua, 7.3. oinarri orokorra).

6.2. Hala ere, deialdia ebatzitakoan ez bada 2.1 artikuluan jasotako aurrekontu kreditua agortu, sortutako gerakina erabili ahal izango da, hainbanaketaz ehuneko 90eraino handitzeko onuradun bakoitzaren dirulaguntza ehunekoak.

6.3. Nolanahi ere, toki erakundeentzako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa (aurreko apartatuetako ehunekoak aplikatuz ateratakoa) 45.000,00 eurokoa izango da kuadrillentzat, 30.000,00 eurokoa 20.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanleria duten udal onuradunentzat, eta 24.000,00 eurokoa gainerako udalentzat.

6.4. Laguntza eskatzen duen erakundea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuetako laguntza baten onuraduna izan bada programa honen kontura onartutako proiektuen antzeko beste batzuetarako, diruz lagundu daitezkeen oinarria egokitu egingo da, arautegi honetan ezarritako gehieneko dirulaguntza ez gainditzeko.

6.5. Eskaera bat diruz lagundu ahal izateko, ezartzen da esleipenaren unean proposatutako dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa 1.500,00 euro izan behar dela, oro har, eta 2.000,00 euro kuadrillen eta 20.000 biztanletik gorako zuzenbidezko biztanleria duten udal onuradunen kasuan.

7. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du prozedura.

7.2. Balorazio batzordea honela egongo da osatuta:

Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Bokala: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan izapide elektronikokoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayuda-turismo-inversiones-en-cuadrillas-y-ayuntamientos>), betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

AFaren egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKO sistemaren bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoan: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

8.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2023ko maiatzaren 19an amaituko da, egun hori barne.

8.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoan zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

– a) Dirulaguntzaren xede diren inbertsioen memoria (inbertsioen beharra eta nola aurreikusten den hobe dezaketela eskatzailearen lehiakortasuna).

– b) Lana egingo duen edo egin duen kanpoko profesionalaren edo hornitzailearen eskaintza (proformako edo behin betiko fakturak, kanpoko aurrekontua edo, halakorik balego, kontratu sinatua).

– c) Eskatutako 3 eskaintza, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresei 15.000,00 euro edo gehiagoko zerbitzuak eskatu bazaizkie. Hautatu den eskaintza ez bada eskaintzarik merkeena, hura aukeratu izanaren justifikazioa ere aurkeztu beharko da. Proiektua gauzatu hasitakoan, diruz lagundutako ekintzaren baten benetako gastuak 15.000,00 euroko muga gainditzen badu, nahiz eta gastua onetsi zenean zenbatekoa txikiagoa izan, hiru eskaintza aurkeztu beharko dira.

– d) Aurreikusitako gastuen aurrekontu banakaturia.

8.4. Erakunde eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabidearen eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako jakinarazpen guztiak.

8.5. Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkoekin, zeinak interesdunaren esku egongo baitira, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura jarri beharko ditu hala eskatzen zaionean.

Bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen arduraduna.

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukera izango du beste dokumentu batzuk ere eskatzeko, egoki baderitza memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

9. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioesteko irizpideak

9.1. Aurkeztutako jarduerak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera balioetsiko dira:

a) Inbertsio mota (gehienez ere 25 puntu).

Turismo irisgarritasuna hobetzeko inbertsioak (A mota)	25 puntu gehienez
Turismo jarduerak sortu, abian jarri, zabaldu eta dibertsifikatzeko aktibo finkoetako inbertsioak (B mota)	20 puntu gehienez
Baliabide turistikoaren edota ondare historikoaren berreraikitze birtuala (C mota)	15 puntu gehienez
Efizientzia energetikoa hobetzeko jarduketak, mugikortasun jasangarriko jarduketak eta eraikinen birgaitze jasangarriko jarduketak (D mota)	12 puntu gehienez
Donejakue Bideko eta Inaziotar Bideko erromesei arreta emateko azpiegiturak hobetzea, eta GR38an eta Vasco-Navarro trenbideko bide berdean zerbitzuak eta ekipamenduak ipintzea (E mota)	7 puntu gehienez
Informazio turistikoaren emateko bulegoetarako informazio guneetarako altzariak, ekipa informatikoak eta ikus-entzunezkoak (F mota)	4 puntu gehienez

b) Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (20 puntu gehienez).

Eskaera aurkezteko uanean eskabidea osorik zegoen, eta enpresa proiektuaren zehaztasun eta definizio maila oso ona izan da	20 puntu
Eskaera aurkezteko uanean eskaera osorik zegoen, baina enpresa proiektuaren zehaztasun eta definizio maila ez da nahikoa izan	15 puntu
Eskaera aurkezteko uanean eskaera ez zegoen osorik, baina geroago osatu da, eta enpresa proiektuaren zehaztasun eta definizio maila handia izan da	10 puntu
Aurkeztutako gainerako eskaerak	5 puntu

c) Proiektuaren berrikuntza maila, oro har, eta zein neurritan laguntzen duen turismo eskaintza dibertsifikatzen (20 puntu gehienez).

Proiektuak, oro har, izaera berritzaile nabarmena du, eta eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen du	20 puntu
Proiektuak, oro har, izaera berritzaile nabarmena du edo eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen du	10 puntu
Proiektuak ez du izaera berritzaile nabarmenik eta ez du eskatzailearen turismo eskaintza dibertsifikatzen laguntzen	0 puntu

d) Aurreko ekitaldietan emandako dirulaguntzen xedeak zenbateraino gauzatu eta bete diren (20 puntu gehienez).

Gauzatzeko eta betetze maila oso handia (ehuneko 85 baino gehiago onartuta, esleitutakoaren aldean) edo alde zurreratik dirulaguntzarik ez duena	20 puntu
Gauzatzeko eta betetze maila handia (ehuneko 75 baino gehiago onartuta, esleitutakoaren aldean)	15 puntu
Gauzatzeko eta betetze maila ertaina (ehuneko 60 baino gehiago onartuta, esleitutakoaren aldean)	10 puntu
Gauzatzeko eta betetze maila txikia (ehuneko 60 baino gutxiago onartuta, esleitutakoaren aldean)	5 puntu

e) Jarduketaren lurralde kokapena (15 puntu gehienez).

Kuadrilletan eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietan egindako jarduketak	15 puntu
5.000 biztanle edo gutxiagoko udalerrietan egindako jarduketak	10 puntu

Irizpide hau baloratzeko Estatistika Institutu Nazionalak egindako udal errolda hartuko da aintzat, 2023ko urtarrilaren 1eko datuak, hain zuzen ere.

9.2. Edonola ere, lerro honetako dirulaguntzen onuraduntzat eman ahal izateko, eskatzaileak deialdi honetako 3. artikuluan ezartzen diren betekizun guztiak bete beharko ditu eta, horrez gainera, aurkeztutako jarduketaren multzoak gutxienez 50 puntu lortu beharko ditu balorazioan.

9.3. Onuradunak hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

9.4. Baldin eta eskaerako inbertsio batzuek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ustez ez badute behar beste laguntzen dirulaguntzaren xedea lortzen, partida horiek kanpoan utzi ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko orduan. Era berean, erakunde onuradunak 6.1 apartatuan ezartzen den diruz laguntzeko moduko gehienezko aurrekontua agortzen badu, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ahala izango da diruz lagunduko diren gastu kontzeptuak zehaztea.

10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia

10.1 Organo eskudunak dagozkion ebazpenak emango ditu. Ebazteko epea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren seigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da. Ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoaren bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoaren Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

10.2 Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, baina zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegien aurrean, egintza argitaratu ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

11. artikulua. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

11.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

11.2. Dirulaguntzak bitarteko elektronikoen bidez justifikatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitezkeen erregistro elektronikoen.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute jatorrizkoekin, zeinak interesdunaren esku egongo baitira, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura jarri beharko ditu hala eskatzen zaionean.

Bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen arduraduna.

11.3. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren zenbateko justifikatua ordaintzeko betebeharra onar dezan, onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du 2023ko abenduaren 15ean amaituko den epean (egun hori barne):

– Egindako jarduketan/inbertsioen memoria. Obrak eginez gero, obren argazkia ere aurkeztu behar da memoriarekin batera.

– Justifikazio fakturen zerrenda; honako hauek jaso behar ditu: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data, ordainduta badago.

– Fakturak eta gainerako frogagiri baliokideak.

– Baldin eta gastuak kontratu txikien zenbatekora (40.000,00 euro obretan edo 15.000,00 euro gainerako kontratuetan) heltzen badira edo kopuru horiez gaindikoak badira eta hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, hautapenaren justifikazioarekin batera hiru eskaintza eta justifikazio txostena aurkeztu beharko dira, baldin eta eskaera egiteko unean aurkeztu ez bada eta ondoren benetako gastuak kontratu txikientzat ezarritako muga berdindu edo gainditu badu.

– Hauei buruzko informazioa jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena:

a) Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopiak jatorrizko dokumentuekin bat datozeela.

b) Dirulaguntza honetaz gainera, hemen diruz lagundutako kontzeptuetarako beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuk lortu diren. Hala bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztu behar da.

Faktura elektronikoen aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua.

11.4. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren zenbateko justifikatua ordainduko du, onuradunak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuan fakturak ordaindu izanaren justifikazioa aurkezten badu 2024ko martxoaren 29an amaituko den epean (egun hori barne). Ordaindu izanaren egiaztagiritzat formatu hauetako edozein joko da:

– Banka elektronikoen bidez egindako banku laburpenak edota transferentzia aginduak, ordainketaren ordaintzailea eta onuraduna, zenbatekoa eta data zehaztuta dutenak.

– Tiketak (faktura erraztuak), baldin eta Fakturazio Araubidearen 7. artikulua 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera egin badira (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua), hau da, ordaindu beharreko kopurua ordaindu dela frogatzen duten faktura erraztu kualifikatuak, jasotzen dutenak hartzailearen IFZ eta helbidea, baita esleitutako zerga kuota bereizita ere, eta zehazten dutenak diruz lagundutako jarduna.

– Eskurako ordainketen kasuan, fakturaren erakunde jaulkitzailearen ziurtagiri sinatua eta/edo zigilu estanpatua duena hartuko da frogagiritzat, eta bertan faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data zehaztuko dira, betiere zenbateko hori eskudiruzko ordainketei buruz indarrean dagoen 2023ko araudian ezartzen direnak baino txikiagoa edo handiagoa ez bada.

– Kontabilitate agiriak.

– Kuadrilla eta udalei dagokienez, fakturak ordaindu izanaren datadun egiaztagiria, lehen-dakariak, alkateak edo idazkari-kontuhartzaileak izenpetua eta zigilatua, zeinetan fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordaindu zeneko eguna agertu beharko baitira.

11.5. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2023rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, ondasun edo zerbitzu ematea zatikatu ahal izan den eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

11.6. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epemugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira agiriak.

11.7. Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitekeen aurrekontua adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzian murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

11.8. Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptu eta zenbatekoetan aldaketak onartu ahal izango dira, baldin eta hasieran onartutako diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren muga gainditzen ez bada, eta dirulaguntza jasotzekoa zen kontzepturen bat egin gabe geratu bada ere. Desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten badira, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzia.

11.9. Kasu batzuetan justifikatu beharreko aurrerakin gisa lehen ordainketa bat egiteko aukera badago ere, ez da ezarri emandako funtsak bermatzeko inolako araubiderik.

11.10. Baldin eta 6. artikuluan ezarritako dirulaguntza mugetatik edozein aplikatu bada, onargarria izango da diruz laguntzekoa den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe; alabaina, beharrezkoa izango da dirulaguntzaren xedea betetzea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxieneko zenbateko justifikatu beharrekoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehuneko.

11.11. Lehen aipatutako epeak igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu ez bada, edo aurkeztu beharreko guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

12.1. Oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamabigarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduketak jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira erabaki honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara, bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

13. artikulua. Interpretazioa eta garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio deialdi honen oinarri espezifikoak interpretatzeko, eta oinarriok behar bezala aplikatzeko behar diren xedapen guztiak ebazpenen bitartez garatzeko, baita dirulaguntzaren justifikatu beharreko aurrerakinak itzultzeko egin beharreko ebazpenak ere.

14. artikulua. Eskaerak egokitzea

Erabaki honetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten hirugarren pertsonen jarduketak – dela erabaki honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, diruz laguntzea nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz, proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurten kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako– dagokien laguntza lerrora eraman ahal izango dira ofizioz.

15. artikulua. Araubide juridikoa

Ebazpen honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arau orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapenak.